

HIRIAK EUROPAN ETA ESPAINIAN

1. Hutsuneak bete hitz hauek erabiliz.



UDALETXEA	NILO	ERROMA	ATENAS	PLANO ORTOGONALA
500	HARRESI	DECUMANUS	CARDUS	IBAI
ESPARTA	PLANO IRREGULARRA	GREZIA	6.000	KATEDRALA

EUROPAKO HIRIEN HISTORIA LUZEA

Lehenengo hiriak orain dela _____ urte sortu ziren _____ hauen ertzean: _____, Eufrates, _____ eta Indus. Handik abiatuta hiriaren ideia Europan zehar hedatu zen.

Antzinako hiriak

Antzinako _____ k _____ hiriz baino gehiagoz osatutako hiri-sarea zuen; nagusiak _____ eta _____ ziren.

Erromako hiriek Antzinako hiri sare handiena osatu zuten. Sare horren burua _____ zen. Hiri erromatarrek _____ zuten, eta kale perpendikularrez osatuta zeuden. Kale nagusiak _____ (iparretik hegora) eta _____ (ekialdetik mendebaldera) ziren. Bien arteko bidegurutzean _____ (plaza) zegoen eta bertan eraikin garrantzitsuak zeuden.

Erdi Aroa

Erdi Aroko hiriek _____ bat zuten inguruan eta _____ : kale estu eta bihurgunetsuak zituzten. Erdigunean eraikinik garrantzitsuenak zeuden: _____, _____, familia aberatsen _____ ...

2. Lotu gezien bidez.

- | | |
|---------------------|---------------------------|
| Cardus ● | ● Erdi Aroko hiri |
| Decumanus ● | ● erromatar hiri |
| Foroa ● | ● plaza publikoa |
| Plano ortogonal ● | ● ekialdetik mendebaldera |
| Plano irregularra ● | ● iparraldetik hegoaldera |

3. Konparatu hiri motak. Osatu.

Plano irregularra

Harresia

Plano ortogonala

Foroa

Plaza

Erdigunea

Hiri mota	Ezaugarriak	Plano mota	Non zeuden eraikin garrantzitsuenak?
Erromatarra			
Erdi Arokoa			

4. Aro Modernoa. Aukeratu erantzun egokia

Ze kezka sortu zen Aro Modernoan?

- a) Herriak hobetzeko kezka.
- b) Hiriak hobetzeko kezka.
- c) Elizak botatzeko kezka.

Nork zuen boterea Aro Modernoan?

- a) Elizak zuen.
- b) Errege-erreginek zuten.
- c) Herritarrek zuten boterea.
- d) a eta b zuzenak dira.

Zer eraiki zuten?

- a) Jauregi handiak, elizak eta monumentuak.
- b) Etxe pila bat herritarrentzat.
- c) Eskolak, etxeak eta dendak.
- d) Areto nagusiak eta zinemak.

Non eraiki zituzten?

- a) Ibai ertzetan.
- b) Etorbide nagusien ertzetan.
- c) Plaza erdian.
- d) Elizaren ondoan.
- e) Udaletxearen ondoan.

5. Europar Batasuneko hiriak

Europako biztanleen zer ehuneko bizi da landa-eremuetan?

Europako biztanleen zer ehuneko bizi da hirietan?

Zeintzuk dira hiri jendeztatuak?

Zer adierazten dute EB siglek?